

*Oi, zein dan ituna
beera-beera!
Nik ez nai eguna
biurtzerik gau.*

Lizirdiren olerkia baliatu nahi izan dugu azken aldiko heriotza zenbaitek euskaltzaleen mundura ekarri duen tristura adierazteko. Hildakoen artean ditugu Begoña Bilbao idazlea, Julian Alustiza sermolari eta poeta, Mari Treku idazlea eta Lantziegoko ikastolako hiru andereño, seiak ere euskararen alde hamaika lan egindakoak.



Begoña Bilbao (Bermeo, 1932) maiatzaren 9an hil zen. Euskal Filologian ikasketak egin zituen Deustuko Unibertsitatean eta Bermeoko euskara teknikari izan zen, bai eta idazle ere. Hainbat ipuin saritu utzi zizkigun (Irun Hiria, Lizardi saria, Bilboko udalaren saria...), eta, horiekin batera, jaioterriko euskarari buruzko liburuak. Iaz, nobela bat argitaratu zuen: *Palestina, zure mina*.



Maiatzaren 10ean, berriz, Julian Alustiza **Aztiri** (Gabiria, 1913) isildu zen. Arantzazuko fraide zen, eta sermolari iaioa. Hiru liburu ere ondu zituen, *Lihoaren penak eta nekeak*, *Euskal baserriaren inguruan*, eta, iaz argitaratu zuen *Biznahiaren arnasa*. 1981ean argitaratu zuen hiru horietan lehena eta, irakurle askoren esanetan, harribitxia da *Lihoaren penak eta nekeak*, oraindik: galdu zaharra ez zen mundu baten aztarna eman zuen bertan Alustizak, era poetikoan.



Mari Treku (Ahetze, 1928) ere joan zen. Mattin bertsolariaren emazteak martxoaren 13an utzi gintuen. Senarraren bizitzari buruzko oroitzapen liburu bikain bat idatzi zuen 1982an, *Mattin, nere gizona* izenburupean eta Auspoa bildumako alerik ederrenetarikoa. Bertsozale zen, eta bertso idazle. Hainbat sorta argitaratu zituen *Herria* aldizkarian. *Gure Irratia*-ko berriemaile ere izan zen, Ahetzeko berriak kontatzen zituela.



Azkenik, ezin ahaztu Lantziegoko ikastolako hiru andereñoen heriotza ere. Apirilaren 15ean gertatu zen. Tartean zen orain dela 25 urte herriko ikastola abiatu eta, Lurdes Arrieta.

Goian beude.



Gazteentzako komiki berri bat jaio da: **Xabiroi**. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren ekimena da eta lau hilabetekari izango da, 36 orrialde izango ditu eta *Ikastola* aldizkariarekin batera banatuko da.

Hainbat komikigile eta gidoigile bildu dira komiki berrian, Dani Fanoren ardurapean. Bertan parte hartuko dutenen artean, dira, esate baterako, Iñaki G. Olgado, Juan Luis Landa, Dani Fano, Marko, Asisko, Manu Ortega, Harkaitz Cano, Joxean Muñoz...

Orain arte euskaraz argitaraturiko komikiak haur eta gaztetxoentzakoak izan badira ere, *Xabiroi*, horiek ez bezala, gazte eta helduei zuzendurik dago.



Euskalgintzak aintzaketzat hartu beharreko mendeurrenik bada aurten. **Estepan Urkiaga, Lauaxeta**, idazle handiari dagokiona gogoan hartzeko modukoa dugu.

Lauaxeta 1905eko abuztuaren 3an jaio zen Laukizen. Hil, berriz, Gasteizen, 1937ko ekainaren 25ean: egunsentian, bizkarra Santa Isabel hilerriko hormaren kontra eta begiak Gorbeia aldera begira zituela, fusilatu zuten.

Hainbat dira olerkariaren jaiotza-mendeurrena gogoan, ekainean buruturiko ekintzak eta jardunak. Hainbat dira, era berean, euskaltzale handiari zor zaion omena egin, miresmena erakutsi eta herritarren artean Lauaxetaren lana ezagutze aldera bideratuko diren ekitaldiak.

Hurrengo hilabeteetan egingo direnen kaltetan gabe, bi dira aipatu beharrekoak. Batetik, Mungia-ko herriak aparteko ikuskizuna antzeztu du eta berariazko omenaldia eskaini Gasteizko Santa Isabel hilerrian. Bestetik, Eusko Jaurlaritzak Lauaxetari buruzko gehigarria egin du eta duela 25 urte Antton Valverde kantariak atondu zuen "Lauaxeta" diskoa banatu du *Berria* egunkariarekin batera.



Oraingoan udaletako euskararen erabileraren eta normalizazioaren azterketa jorratu da. Horri dagokionez, bi ekimen nagusi hartu dira kontuan aldizkariaren ale honetan. Batetik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bideratu duen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, eta, bestetik, Kontseiluaren Bai Euskarari Akordioa.

Aldizkarian ageri diren artikuluen artean da "Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren hedapena toki mailako erakundeetan (2002-2005)" izeneko, HPSko teknikari diren Ane Crespok eta Amaia Agirrek sinatu dutena.



Eusko Jaurlaritzak *Euskadi*


Informazio Gizartean Planak ezarritakoari men eginez, euskarazko ahotsa ezagutzeko (ahotsa testu bihurtu) eta sintetizatze (testua ahots bihurtu) motoreak garatu ditu Scansoft Belgium enpresarekin 2003an izenpetutako hitzarmenari esker. Motoreak garatu ahal izateko, hainbat hizkuntza-baliabide sortu behar izan dira: bi datu-base akustiko, lexiko fonetiko bat eta testu-corpus handi bat. Baliabideak EAEko agente desberdinek landu dituzte.

Aipatutako teknologiak sustatzeko eta ezagutzarazteko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak **Aditu programa** (www.euskara.euskadi.net/aditu) jarri du abian. Izan ere, teknologia horiek erabiltzen dituzten aplikazio-sortzaileek hemendik aurrera beren produktuak euskaraz ere eskaintzeko aukera izango dute.



Xuxen euskararen zuzentzaile ortografikoaren

bertsio berriak eskura daitezke www.euskara.euskadi.net helbidean, *Softwarea deskargatzea* atalean. Azken bertsioek (Microsoft Office, Mac Word X eta OpenOffice.org Windows eta Linuxerako) Euskararen Datu Base Lexikalaren (IXA taldeak egindako datu-basea) datuak dauzkate. Aurreko bertsioak ere eskuragarri daude aipatutako web gunean.



Urtero ohi denez, pastoralaren aldi da uztailaren 24 eta 31n, Zuberoan. Aurten, Bereterretxe hartu dute tragediaren gai nagusitzat, Etxahun Irurik idatzitako testua oinarri harturik. Historiaren arabera, XV. mendearen erdialdean, Mauleko kondeak Larraineko Bereterretxe nekazaria hil zuen, azpikeriaz, Etxebarreko Ezpeldoiaiko etxearen aitzinean.

Bereterretxe pastoralak 23 atal eta 12 kanta ditu eta Aterei herriko soro batean erakutsiko dute, Aterei bereko, Lexantzuko, Zunarreko, Etxebarreko eta Ligiko herritarrek.



Farmazialari Euskaldunen Elkarteak (FEUSE) saria eman dio EHuko Farmazia fakultateari, farmazian euskararen normalkuntzarako egin duen lana eskertzeko asmotan.

FEUSEk aurten bertan sortu duen sariak **Feuseren farmaburua** izena darama eta farmazia arloan euskararen alde egindako lana ezagutaraztea du helburu.



Genealogiari buruzko jardunaldiak egin zituzten apirilean, Bilbon, Reno-Nevadako Unibertsitateko Center for Basque Studies ikastegiak eta Euskaltzaindiak. Helburua, "Euskal Genealogia" izeneko proiektua abiaraztea izan zen, hau da, AEBetako euskaldunen datu-base biografiakoa osatzea.



Martin Ugalde eta Bitoriano Gandiagaren obra osoak biltzeko urratsak egin ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak eta hitzarmenak sinatu bi elkarterekin.



Ugalderen lan guztiak Jakinkizunak elkarteak bilduko ditu. Elkartearen arduradun Joan Mari Torrealdaik lanak 22.000 orrialde izango dituela aurreikusi du: 300 orrialdeko 73 liburu mardul.

Gandiagarenak Arantzazuko frantziskotarrek bilduko dituzte. Paulo Agirrebaltzategi arduratuko da lan horretaz. Adierazi duenez, orain arte, Mendatoko poetaren 3.254 erregistro jaso dira datu-basean.



daitezke, edo, bilatzailea erabiliz, bilaketa azkarrak ere egin daitezke. Gainera, artikulua bakoitza bi modutara ikus daitezke: Interneteko HTML formatuan, edo papereko itxuran.

Bestalde, esan, maiatzaren hasieraz gero egoitza berria duela Elhuyar Fundazioak, Usurbilgo Osinalde industrialdean.

Klasikoaren gordailua

Euskal literatura sarean jartzeko ekimenik handiena eta osatuena antolatu du Susa argitaletxeak berriki: euskal literatura klasikoak jarri du Interneten, **Klasikoaren Gordailua** (www.armiarma.com/klasikoak) izenpean. Bertan, Erdi Arotik 1936ko gerra bitartean eginiko liburu eta testuak bildu dituzte gune elektronikoan. Bertan dira Etxepare, Leizarraga, Axular, Oihenart eta beste askoren lanak, 120 izenen zerrenda osatu arte. Gainera, ahozko tradizioko diren baladak, poesiak, kantak, ipuinak eta kondairak ere jaso dituzte gordailuan.



Aurten 100 urte dira **Jules Verne** (1828-1905) idazlea hil zenetik. Literaturaren Leonardo da Vinci izan zela diote adituek, 'zientziako nobela' asmatu zuela, espaziorako bidaiak, urpekuntzia eta helikopteroa aurreikusi zituela... UNESCOren arabera 112 hizkuntzataratza itzuli dituzte haren liburuak.


Euskaraz ere aspaldi hasi ziren itzultzen Verne-
ren liburuak eta, gaur egun, hainbat titulu ditugu gure hizkuntzan. Horien artean dira, adibidez, *Hamabost urteko kapitaina*, *Migel Strogoff*, *Munduari itzulio 80 egunetan*, *Indieta beltza*, *Lurraren bihotzeraino*, *Grant kapitainaren semeak*, eta abar.



Apirilaren 26an, Ezagutzaren Clusterrak bultzaturiko "Nola txertatu euskara erakundeak kudeaketan: gakoak eta esperientziak" izeneko txostenaren ondorioak aurkeztu zituen. Batetik, iaz egindako hausnarketaren emaitzak plazaratu zituen: euskararen balio erantsiaren inguruan egindako gogoeta eta edozein erakundetan euskararen erabilera txertatzeko gakoak jaso ditu.

Bestetik, foroan parte hartu duten askotariko erakundeek aurkeztutako kasu praktikoak jaso dira.

2003an Euskara eta Kudeaketa izeneko foroa sortu zen Ezagutzaren Clusterraren baitan eta ondoko erakundeak ditu partaide iraunkor: Azti Fundazioa, Batz S. Coop., UPV-EHU, EITB, Elhuyar Aholkularitza, EMUN, ESTE Unibertsitatea, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Gaiker Fundazioa, IDOM, Ikerlan, IMH, Labein Fundazioa, MCC S. Coop., Mondragon Goi Eskola Politeknikoa, Robotiker Fundazioa, Tekniker Fundazioa, UZEI eta VISESA. Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek lagundu dute foroa.



II. Mapa Soziolinguistikoa ikus daitekeenez, azken hogeit urteotan nabarmen egin du gora euskararen ezagutzak Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE). Bostetik bat zen elebidun 1981ean, eta herena, ordea, 2001ean. Hortaz, euskaraz dakiten 200.000 pertsona gehiago dago.

EAEko biztanleen % 32,2 elebidunak dira (639.296 lagun), % 18,2 elebidun hartzaileak (361.006 lagun) eta % 49,6 erdaldun elebakarrak (984.656 lagun).

Elebidunen igoera, gainera, orokorra izan da, hau da, hiru lurralde historikoetan gertatu da. Horrez gain, adin-talde guztietan ere halaxe gertatu da, 65 urtetik gorakoen artean izan ezik. Bestalde, azpimarratzekoa da, 25 urtetik beherako gazteen artean, nagusi direla elebidunak.

Euskarak aurrera egin du kopuruetan, eta horrekin batera, elebidun-eredu berriaren ezaugarriak ere finkatuz joan dira. Gaur egun, elebidun gehienak (% 66,3) hirietan bizi dira, batik bat hiru hiriburuetako metropoli-guneetan eta EAEko errepide-sare nagusietan lerratzen diren 10.000 biztanletik gorako udaletan, eta baita kostaldeko zenbait gunetan ere.

Baina euskararen egoera eta bilakaera nolokak diren sakontzen jarraitu aurretik, komenigarria da kontuan hartzea gure gizartearen egitura aldatzen ari diren eta, zalantzarik gabe, euskararen bilakaeran eragina izango duten bi

fenomeno: biztanleriaren zahartzea eta atzerriko inmigrazioa.

Azken urteotan, EAEko jaiotza-tasa oso baxua da. Horren ondorioz, biztanleria nabarmen zahartu da. Hori argi eta garbi ikus daiteke 1981 eta 2001eko biztanleriaren piramideei erreparatuz gero.

Egia da, halere, 2001eko Zentsuan bertan joera-aldaketa baten zantzuak antzeman daitezkeela. Izan ere, lehenengo aldiz azken 20 urteotan, adin-talderik gazteena (0-4 urte) hurrengoa (5-9 urte) baino handixeagoa da.

Hortaz, biztanle kopurua hazten bada, kanpotik etorritako pertsonen esker izango da neurri handi batean. Biztanleria osoarekiko proportzioa oraindik txikia bada ere, azken urteotan asko hazi da bertaratutako atzeritarren kopurua. Hori egiaztatzeko, nahikoa da ikustea EAEko bizi diren atzeritarren erdia baino gehiago (% 54,9) 1996 eta 2001 bitartean etorri direla eta, gainera, azken urtean etorri direnak 1996an etorritakoak baino bost aldiz gehiago direla.

Atzeritar horiek eta datozen urteetan etorriko direnak erabat gizarteratu daitezten, euskara ahalik eta errazen eta modu naturalean jasotzeko ekimenak lehenetsi beharko dira.



Euskaltzaindiak omenaldi berezia egingo die uztailaren 22an, Donibane Garazin, Nafarroako Jean-Pierre Arbelbideri eta Frantzisko Laphitz idazleei, hauen heriotzaren mendeurrena ospatuz.

Lehenari dagokionez, Jean-Pierre Arbelbide (Zaro, 1841 – Baiona, 1905), elizgizona izan zen eta hainbat lan argitaratu zituen euskaraz. Ezagunena, *Erlisioea: Eskual-herriari dohazkion egariak beharrenak* izenekoa, Euskaltzaindiak eta Nafarroako Gobernuak iaz berrargitaratua.

Bigarrena, Frantzisko Laphitz (Arizkun, 1832 – Plata, Argentina, 1905), apaiz izan zen Baigorri eta Altzain (Zuberoa) Hego Amerikara misiolari joan baino lehen, Paraguai eta Argentinara.

Bi saindu hescualdunen bizia, San Inazio Loiolacoarena eta San Francisco Zabierecoarena du libururik ezagunena; zenbait adituren ustez, inoizko euskararik ederreneko idazlana.

Laster bi egileon biografiak argitaratuko dira *Bidegileak* bilduman.



Berripaperaren 155 alean adierazi genuenez, Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak *Sustraituz* izeneko zerbitzua abiarazi zuen otsailen. Horren helburu da euskaraz lan-munduan duen kokaguneaz sortzen den informazioa interesa duenari helaraztea.

Oraindik orain, berriz, web gune elebidunak edo eleaniztunak diseinatzeko aholkuak jasotzen duen dokumentua kaleratu du Sustraituz-ek. Erabiltzaile euskaldunari begirako gomendio praktikoak dira gehienak eta horien helburu, berriz, web orriak eratzerakoan euskaraz presentzia egokia izan dezan ziurtatzea. Aldi berean, jakina, erabiltzailea web gunean zehar eroso ibil dadin lortu nahi da, informazioa euskaraz eskuratuz eta beste hizkuntza batera jotzen ibili beharrik izan gabe.

Dokumentua osorik eskuratu nahi izanez gero, jo sustraituz@ej-gv.es helbidera.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu inprimaki honen bitartez jarritako zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia-San Sebastián, 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) / Tel.: 945 01 81 16 • e-posta: l-sosoaga@ej-gv.es